

## “LA CAIXA” BEKAK, ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAN DOKTOREGO IKASKETAK EGITEKO

“La Caixa” Gizarte Ekintzak 20 beka eskainiko ditu doktorego tesiaren irakurketarekin amaituko diren doktorego ikasketa ofizialak egiteko.

### **Ezaugarriak:**

1. Beka jaso dezaketen doktorego programek Europako Unibertsitate Eremura egokituta eta doktorego ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuak araututa egon behar dute.

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUko eskaintza ondoko estekan dago kontsultagai:  
<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikaskle-berriak>

2. Deialdi honetan **jakintza arlo guztiak** sartzen dira.
3. Bekadunek 2016ko iraila eta urria bitartean egon beharko dute helburuko unibertsitateetan.
4. Beken gehieneko iraupena hiru urtekoa da, urtez urte luzagarriak.

### **Eskaerak aurkezteko epea:**

Epemuga **2016ko otsailaren 29a izango da, 14:00an** (penintsulako ordua).

### **Diru-kopurua**

Gehieneko diru-kopurua 115.000 €-koa izango da, 36.000 €-ko hiru urtesari gordinetan banatua (Gizarte Segurantzaren kuotei dagozkien kopuruak kenduta nahiz beste halabeharrezko kuota guztiak ere), gehi laugarren urtean ordainduko den 7.500 €-ko saria, bekadunak tesia bekaren hirugarren urtea bukatu eta hurrengo 6 hiletan aurkezten badu.

**GARRANTZITSUA:** Bekadunak ezingo du lan ordaindurik egin edo bestelako erakundeen diru-sarrera edo -laguntzarik jaso, “la Caixa” Gizarte Ekintzak espresuki baimendu ezean.

### **Prestakuntza osagarria:**

Bekadunek zeharkako gaitasunen inguruko eta gelan bertako prestakuntza-programa batean parte hartuko dute. Arloko nazioarteko enpresen (Oxford – Isis Innovation eta Crac Vitae) ardura izango da aipatua diseinatzea.

### **Eskatzaileen eskakizunak:**

- a. Nazionalitate espainiarra izatea.
- b. Goi-mailako titulua izatea, **2011ko urtarrila eta 2016ko ekaina bitartean lortua**. Tituluak, indarreko legediaren arabera, doktorego programa ofizial bat egiteko gaitu beharko du. Halaber, doktorego ikasketak egiten dituen lehenengo aldia izango da eskatzailearentzat.
- c. **Ingeles** maila nahikoa frogatzea, deialdiaren oinarrietan onartutako ziurtagiriren bat erabiliz.

- d. **Mugikortasuna: helburuko unibertsitatea edo ikerketa zentroa ez da izango, inolaz ere, bekadunari lizentziatura edo gradu titulua eman dion unibertsitate berbera; era berean, doktorego ikasketak bekadunaren ohiko bizilekua hartzen ez duen autonomia erkidego batean egin beharko da.** Halaber, eskatzailea autonomia erkidego zehatz batean 12 hilabetez (nahiz eta jarraituak ez izan) bizitzen edo lanean egon bada, deialdia aurretiko 3 urteotan, eskatzaileak ez du autonomia erkidego horretara joateko betarik izango.
- e. **2016/2017 ikasturtea baino lehen doktorego ikasketa berdinetan izena eman eta dagozkien tasak ordaindu dituzten pertsonak ez dute beka eskatzeko aukerarik.**

***Eskaera aurkezteko prozedura:***

Eskaera **Internet** bidez egingo da, "la Caixa" Gizarte Ekintzako webguneko beken atalak eskaerentzako duen aplikazioa erabiliz ([eskaerak](#))

***UPV/EHUko barne prozedura:***

UPV/EHUK **bakarrik** egin ahal izango ditu kontratuak UPV/EHUko doktorego programetako tesi zuzendariak dituzten onuradunekin. Eskatzaileen eginbeharra da beren zuzendariak baldintza hori betetzen dutela ziurtatzea. Programa bakoitzari atxikitako irakasleen zerrenda esteka honetan ikus daiteke:

<http://www.ehu.eus/es/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikaskerriak>

Ildo beretik, UPV/EHUK **bakarrik** egingo ditu kontratuak unibertsitateko sail edo institutu bati atxikiko diren pertsonekin.

UPV/EHUri atxiki nahi duten eskatzaileek hala adierazi beharko dute eskaria aurkeztean, eta aplikazioaren bidez igotako dokumentu guztiak bidali beharko dituzte helbide honetara: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) . Mezuaren gaien "La Caixa beka" jarri beharko dute. Era berean, adierazi beharko dute zein ikertalderi atxiki nahi duten eta nor den proposatutako tesiaren zuzendaria.

***Informazio gehiagorako:***

**La Caixa Fundazioa harremanak:**

Posta-e: [becas@fundacionlacaixa.org](mailto:becas@fundacionlacaixa.org)

**EHU/UPV harremanak:**

Posta-e: [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus)

Telefonoa: 94 601 8008